LANEKI Jakinbai buletin@

LNKi 2022/ 1 buletin@ URTARRILA

## MATERIAL BERRIA

### SANEAMENDU-INSTALAZIOAK ERAIKUNTZAN

SANEAMENDU-INSTALAZIOAK ERAIKUNTZAN bi zatitan banatuta dago. Lehenengo atala Donostiako Easo Politeknikoan erabiltzen den materialean dago oinarrituta. Material horren egilea Juan Mari Zubiaurrea da, eta haren lanaren ardatza Eraikingintzaren Kode Teknikoaren (EKT) Higienea eta Osasuna dokumentua da. Hortaz, lan honetako taulak kode teknikoan agertzen diren izendapenekin eta zenbakiekin jaso dira. Bigarren atalean, berriz, material gehigarri berria dago bibliografian aipatzen diren iturrietatik abiatuta.

Fernando Gomez — 2022/01/25

Material berria: hemen




---

## Jakinbai.eus ASEBETETZE INKESTA

**jakinbai.eus web gunearen zerbitzua hobetzeko asmoz, Lanbide Heziketako euskarazko ikasmaterialen inguruko inkestaren erantzunak**

| Jakinbai..eus-en erabilga-rritasuna | materialen kalitatea | materialen euskara kalitatea | Materiala-ren erabilera ikasgelan | Materialak euskara-tzeko proiektua-ren beharra |
|---|---|---|---|---|
| 7,5 | 7,7 | 7,8 | 6,7 | 9,7 |

jakinbai
LANBIDE HEZIKETARAKO EUSKARAZKO MATERIALA

# LH DUALA EUSKARAZ EKITALDIA




**"LH DuaLa Euskaraz" ekimena, euskarak duen balioaren kontzientzia eta jarrera piztu, eta heziketa eta lana euskaraz garatzeak duen balioa ikustarazteko martxan jarritako egitasmoa da.**

Testuinguru horretan, 2022ko otsailaren 18an antolatuko den ekitaldiaren helburu nagusia **euskarazko lantokiko egonaldien esperientziak aitortzea** da.
**"Euskaraz, balioa erantsi lanari!"** lantoki, ikastetxe eta ikasle sareari zuzenduriko aktibaziorako mezu zehatza da, eta komunitate honekin bat egitera gonbidatzen zaitugu. Nahi izanez gero, ekitaldia zuzenean jarrai zenezake hurrengo estekatik: https://lhdualaeuskaraz.eus/ekitaldia-zuzenean/

**Sorpresaz beteriko ekitaldia izango da. Ez ezazu galdu!**






## BIZKAIAN DIRULAGUNTZA DEIALDIA

### LH Duala euskaraz egiten den lantokientzat dirulaguntzak


BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

244. zk. 2021, abenduak 22. Asteazkena 1. orr.

I. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA
Bizkaiko Foru Aldundia

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 162/2021 FORU DEKRETUA, abenduaren 14koa, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2022ko ekitaldian euskararen erabilera sustatzen duten merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei.

Lantokiko Prestakuntza edota Duala euskaraz egiten den lantokientzat dirulaguntzak

Deialdia deskargatu: DEIALDIA

## Norentzat

**2022KO EKITALDIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN DUTEN MERKATARITZA-SOZIETATEEI, KOOPERATIBA-SOZIETATEEI, ENPRESABURU INDIBIDUALEI ETA PROFESIONALEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.**

## Xedea

b) 2022ko ekitaldian Lantokiko Prestakuntza modulua euskaraz egiteko aukera eskaintzeak dakartzan gastuen finantzaketa.

Laguntza hauen helburua da honako hauek euskaraz egiteko aukera eskaintzeko eskatzaileek egindako hainbat gastu finantzatzea:

1) Lantokiko Prestakuntza-modulua, 2003ko uztailaren 8ko 156/2003 Dekretuak, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloen baitan Lantokiko Prestakuntza Modulua egiteko modua arautzen duenak, xedatutakoaren araberakoa.

2) Modalitate dualean egindako prestakuntza, 2015eko ekainaren 2ko 83/2015 Dekretuak, Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, xedatutakoaren araberakoa.

## Eskabideak aurkezteko epea eta lekua

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 artikuluaren arabera, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera).

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago Foru Dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 17an hasiko da eta 2022ko martxoaren 15eko 13:30ean amaituko da.

# LANABES IKUSENTZUNEZKOA

**LH Duala Araban euskaraz** Ikusi bideoa: BIDEOA










